



◆ Tel. +34 943 481 157 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Donostiako Giza Eskubideen 22. Zinemaldiko Gazte Epaimahaiaren oinarriak (2025)

Dokumentu honek jasotzen ditu Donostiako Giza Eskubideen 22. Zinemaldiaren Gazte Epaimahaikideen izen-emate prozesu, eginkizun eta eskubideak.

Zinemaldia 2025ko apirilaren 4tik 11ra izango da, Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean. Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldia Donostiako Udalak antolatzen du Giza Eskubideen Bulegoaren eta Donostia Kulturaren bitartez.

Zinemaldiak honako hauek eskaintzen ditu:

- Gai sozialak jorratzen dituzten filmak, Donostian inoiz ikusi ez direnak. Batzuk, nazioarteko jaialdietatik datoz.
- Jarduera paraleloak: erakusketak, solasaldiak...

Bere helburua giza eskubideen urraketen aurrean herritarren kontzientzia kritikoa piztea da, eta pertsonak gizartea eraldatzeko jardun dezaten bultzatzea.

Zer da Gazte Epaimahaia?

Edizio honetan **18 eta 30 urte** bitarteko **150 gazte inguruk** osatuko dute. Beraiek erabakitzen dute nor izango den **Film Laburren Nazioarteko Lehiaketaren** irabazlea.

Nolakoa da izen-emateko prozesua?

- www.zinemaetagizaeskubideak.eus webguneko formularioa bete beharko duzu. **Azken eguna: martxoaren 7a (barne).**
- Behar izatekotan, **zozketa** egingo dugu **martxoaren 11n.**
- **Zure helbide elektronikora esteka** bat bidaliko dizugu, gure web orrian kontsulta dezazun:
 - aukeratua izan zaren.
 - itxaron zerrendan zauden.
- **Martxoaren 19a** baino lehen **baieztatu** behar duzu parte hartu edo zure eskaera atzera bota nahi duzun.

◆ Tel. +34 943 481 157 | zinema_gizaeskubideak@donostia.eus
www.zinemaetagizaeskubideak.eus | www.cineyderechoshumanos.eus

Zeintzuk dira nire eginkizunak?

1. **Apirilaren 3n, 16:00etan, Antzoki Zaharrera** joan beharko duzu eta

- **NANa** eta **sakelako telefonoa** eraman
- Akreditazioa jaso
- Lehiaketako film laburrak ikusi eta bozkatu. Bozketa mugikorrarekin egingo da QR kode baten bidez

Garrantzitsua: ezinbestekoa da egun horretan joatea zinemaldiaren epaimahaikide izateko. Saioa 16:30etik 20:30era izango da, gutxi gorabehera.

2. **Apirilaren 4-11 bitartean**, Victoria Eugenia Antzokiko 19.00/19.30eko saioen % 80ra joan beharko duzu (ordua gutxi gorabeherakoa da), gutxienez.

- Akreditazioa sarreran eta irteeran erakutsi, bertaratze kontrola dela eta.
- Film labur batek eta solasaldi batek osatzen dute saio bakoitza eta horietara joan beharko duzu. Ikusleek, pelikulen zuzendariak, protagonistak, ekintzaileak eta giza eskubideetan adituek parte hartzen dute solasaldietan. Saio bakoitzak 2 ordu eta erdi inguru irauten du.

Zer eskubide dut epaimahaikide izateagatik?

Gonbidapenak:

- Zinemaldiko gainerako saioetara (klausura barne) sarrera bana.

Unibertsitateko diploma eta ECTS:

- Gazte Epaimahaiko kide zarela egiaztatzen dizun diploma jasotzeko diploma *.
- Emandako orduak adierazten dituen ziurtagiria, parte hartu duzun saioen arabera. Ziurtagiri honekin ECTS 1 bat lor dezakezu, UPV/EHUko eta Mondragon Unibertsitateko Ikus-entzunezko Komunikazioa graduako ikaslea bazara. Deustuko Unibertsitatekoa bazara, berriz, 2 ECTS *.

Katalogoa / Esku-egitaraua:

- Filmei, gaiei eta jarduera paraleloei buruzko informazio guztia: erakusketak, solasaldiak, hitzaldiak.

* **Saioen %80ra** joan behar duzu diploma eta ziurtagiria jasotzeko.

Donostian, 2025ko urtarrilaren 31ean